


Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %0,9 murriztu ziren 2018ko hirugarren hiruhilekoan

Erregaien salmentak %4,0 hazi ziren eta elikagaienak %1,0, baina gainerako produktuenak %3,2 jaitsi ziren

Eustaten arabera, 2018ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmentak %0,9 jaitsi ziren prezio finkoetan aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, sektorearen salmentak %1,4 jaitsi ziren urte arteko tasan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizeak %0,2ko hazkundera erregistratu du, prezioak behin deskontaturik eta urtaro-eraginak kendurik.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%). Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Sektoreka, elikagaien salmentak %1,0 gehitu ziren 2018ko hirugarren hiruhilekoan, baina gainerako produktuen txikizkako salerostea %3,2 jaitsi zen; automobilgintzarako erregaien salmenta %4,0 igo zen, betiere 2017ko aldi beraren aldean eta prezioen eraginik gabe.

Elikagaien txikizkako salerostearen barnean, espezializatua %0,5 jaitsi zen, baina elikagaiak nagusi diren ez-espezializatua %1,7 gehitu zen.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan aldakuntza negatiboak daude azpisektore guztietan. Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatua %6,3ko jaitsiera gertatu da; bestelako kontsumo-ondasunetan espezializatua %4,5eko jaitsiera izan da, pertsonaren ekipamenduan espezializatua %3,1ekoa izan da jaitsiera eta etxeko ekipamenduan espezializatua %0,5ekoa, prezio finkoetan hori guztia.

Lurraldeka, urte arteko salmentetan igoerarik gertatu da Gipuzkoan, %0,4koa termino errealetan, baina Araban eta Bizkaian %0,9ko eta %1,9ko jaitsierak izan dira, hurrenez hurren, 2017ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Euskal AE osoan, 2018ko hirugarren hiruhilekoan, txikizkako merkataritzako sektorean okupatuen kopurua %0,3 gutxitu da aurreko urteko aldi beraren aldean eta %0,3 ere jaitsi da 2018ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. III/2018

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera		
Euskal AE	-0,9	0,2
Araba/Álava	-0,9	0,0
Bizkaia	-1,9	0,0
Gipuzkoa	0,4	0,6
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera		
Elikagaiak	1,0	0,5
Elikagaietan espezializatuta	-0,5	-0,1
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	1,7	0,2
Beste produktuak	-3,2	-0,6
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	-3,1	-2,4
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-0,5	0,8
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-4,5	-0,7
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-6,3	-0,9
Automoziorako erregaia	4,0	1,1
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	-1,4	-0,1
ENPLEGU INDIZEA		
Euskal AE	-0,3	-0,3

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak
Iturria: Eustat.Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62